

Rserba: FUNTSEZKO JARDUERAK

SARRERA:

- Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?
- Gure negozio ereduak funtziona dezan, egin behar ditugun funtzesko jarduerak dira.
- Funtzesko jarduerak hauek dira:
 - Apparen diseinua
 - Partnerrekin akordioak egin
 - Appa sortzea
 - Arazoak konpontzea



AZALPENA:

Gure negozio ereduak funtziona dezan, funtsezko jarduera jakin batzuk egin behar ditugu. Lehenik eta behin, gure **app-aren diseinua** egin behar dugu. Izan ere, gure enpresaren bizkarrezurra delako diseinua. Rserba, gure erabiltzaileentzat oso **app eroso**a izan behar delako. Hau dela eta, gure enpresa ondo joatearen gako, Rserbaren diseinua ondo egitean dago.



Diseinua jada egonkortuta daukagunean, **partnerrekin akordioak** egin behar ditugu. Hau da, herriko jatetxeak eta Gipuzkoako Ostalaritzako elkarteak. Herriko jatetxeek menuak zeintzuk diren, zenbat pertsonentzat erreserbatu ahal den, dituzten eskaintza bereziak zeintzuk diren eta baita, ea zer iragarki jartzea nahi duten komunikatuko digute eta ostalaritzako elkarteak aldiz, gure aplikazioa zabaltzera lagunduko digute.

Jada bi jarduera hauek eginda ditugunean, app-a sortuko dugu, gure diseinua abiapuntu bezala hartuta. Azken finean, app-a sortu gabe, lanean ezin garelako hasi.

Eta azkenik, lanean hasten garenean, **ziur arazoak edukiko** ditugula. Horregatik, gure **jarduera garrantzitsuena, arazo horiei aurre egitea** izango da. Horretarako, langileok gure ezagutza denak batuz, arazo horiei aurre egingo diegu. Eta bestela, **adituengana joko** dugu, problema guzti hauek aurrera atera ahal izateko.

